

OLABIDE IKASTOLA

**EKONOMIA ETA ENPRESA ANTOLAKETA
PROGRAMAZIO LABURTUA**

IKASTETXEAREN IZENA	OLABIDE IKASTOLA							2017 – 2018			
ARLOA / GAIA	EKONOMÍA ETA ENPRESEN ANTOLAKETA						DATA				
MAILA	DBH 1		DBH 2		DBH 3		DBH 4		1. BATX.	2 .BATX.	X

1	ARLOAREN GUTXIENGO HELBURUAK
	<p>1.- Enpresaren ikuspegi orokor bat lortu: helburuak, elementuak eta funtzioak ezagutu. Enpresaren kokapena eta dimentsioak ikasi eta hauen arabera klasifikatzen jakin. Enpresa ingurunera egokitzean dituen erronkak ezagutu.</p> <p>2.- Enpresak merkataritza eta zerga arloetan dituen oinarrizko legedia ezagutu. Sozietate zerga, PFEZ edo BEZ baten likidazio erraz bat egiten jakin.</p> <p>3.- Forma juridikoaren esanahia ezagutu eta enpresak irizpide honen arabera klasifikatzen jakin. Enpresa moten ezaugarri juridiko nagusienak ezagutu. Erantzukizun mugatua eta mugagabea ezberdintzen jakin. Bata eta bestearen ondorioak ezagutu. Oinarrizko finantzaketa operazioak: akzioak, jaulkipena, balio nominala eta primak ezagutu. Akzioen errentagarritasuna ezagutu eta kalkulatu jakin. Obligazioak.</p> <p>4.- Enpresaren barne antolaketaren beharra eta garrantzia ezagutu. Enpresaren saila ezberdinak koordinatuko duen zuzendaritza funtzioa ezagutu: planifikazioa, antolaketa, kudeaketa eta kontrola kontzeptuak jakin. Antolakuntza funtzioaren etapak eta barne-komunikazio motak ezagutu. Lanaren antolakuntza ezberdinak eta faktoreak ezagutu. Antolakuntza-egiturako ereduak eta egiturak eta organigramak ezagutu. Kudeaketa funtzioan erabakiak hartzeko irizpideak ezagutu eta erabiltzen jakin.</p> <p>5.- Hornikuntzaren funtzioa ezagutu enpresan barne. Hornikuntza, kudeatu behar den prozesu bat bezala ulertu. Biltegiaren balorazioa teknika ezberdinak ezagutu eta aplikatzen jakin. Stockaren kontzeptua jakin. Horniketa eta biltegiak eragiten dituen kostuak, zein, hornikuntza epea eta eskari bolumen hobezinak kalkulatzeko teknikak aplikatzen jakin.</p> <p>6.- Ekoizpenaren kontzeptua ezagutu eta honen eskakizunak ulertu. Enpresaren ekoizpen funtzioa ezagutu eta irudikatzen jakin. Ekoizpenaren kostuak ezberdintzen jakin eta kostu egiturak kalkulatu eta diseinatzen jakin. Ekoizkortasunaren kontzeptua ulertu, kalkulatu jakin eta kostua eta ekoizkortasunaren erlazioa deskribatzen jakin. Errentagarritasunaren Atariaren kontzeptua ulertu, deskribatzen jakin, baita kalkulatu eta grafikoki irudikatzen jakin ere.</p> <p>7.- Merkataritza funtzioaren kontzeptua ezagutu eta bere garrantzia enpresan baloratzen jakin. Merkatua orokorrean eta merkatu mota ezberdinak ezagutu. Merkatu kuotak kalkulatu jakin. Merkatuaren azterketa faseak ezagutu. Merkatuaren segmentazioaren kontzeptua ezagutu. Marketinaren kontzeptua eta bereziki Marketin Mix-aren elementuak ezagutu duten garrantzia baloratu. Marketin-plana ezagutu. Publizitate produkzio bat egiten jakin (iragarki grabazio bat, iragarki kartel bat, sintonia)</p> <p>8.- Giza baliabideen departamentuaren sekzioak eta funtzioak ezagutu. Langileen nomina baten atalak ezagutu egiten jakin. Curriculum baten atalak ezagutu bat egiten jakin. Lan kontratuaren eragin juridikoak ezagutu. Lan kontratu mota ezberdinak ezagutu eta eredu bateko klausulak betetzen jakin. Langileen ordezkarien eta sindikatuen funtzioak ezagutu. Ezagutzaren kudeaketak enpresan duen garrantzia baloratzen jakin. Lan segurtasun eta higiene eskakizun legalak ezagutu eta garrantzia baloratzen jakin.</p> <p>9.- Enpresaren finantzaketa iturriak, zein motak ezagutu eta jakin. Enpresaren finantzaketa iturri ezberdinen kostuak kalkulatu jakin. Inbertsio kontzeptua ulertu eta kostu zein gastu kontzeptuetatik ezberdintzen jakin. Inbertsio baten ezaugarriak identifikatu jakin. Inbertsioak sailkatzen eta baloratzeko metodo estatikoa zein dinamikoak erabiltzen jakin. Inbertsioa eta arriskuaren erlazioa identifikatu eta baloratzen jakin. Enpresaren ziklo kontzeptua deskribatzen jakin. Enpresaren zikloaren batez besteko heltze-aro finantzarioa zein ekonomikoak kalkulatu, irudikatzen eta azaltzen jakin.</p>

OLABIDE IKASTOLA

- 10.- Enpresari buruzko informazio ekonomiko-finantzarioa tratatzeko kontabilitatearen oinarriak ezagutu. Kontabilitatearen Plangintza Orokorra ezagutu. Egoera balantzearen egitura ulertu eta ezagutu. Galera-irabazien kontua ulertu eta ezagutu. Memoria, FJAE edo finantziazio koadroa, kudeaketa txostena eta altxortegiaren mugimenduaren egoera ezagutu eta osatzen jakin.
- 11.- Kontabilitateko egoera-orrien analisia egiteko etapak zien prozedura eta teknikak ezagutu eta aplikatzen jakin kasu konkretu edo praktikoetara. Enpresaren ondare-analisia egiteko ondare-egitura zein oreka kontzeptuak, prozedurak eta teknikak ezagutu eta aplikatzen jakin. Enpresaren ondare-analisiaren ondorioz jasotako datuak eta errepresentazioak interpretatzen jakin.
- 12.- Finantza analisia egiteko finantza ratioak aplikatzen eta urteko finantzaketa koadroa egiten jakin. Azterketa ekonomikoa burutzeko enpresaren emaitzen eta errentagarritasunaren azterketa egiten jakin.
- 13.- CámaraBilbao University Business Schoolen Preunica Lehiaketan parte hartuz Marketinaren inguruan kasu praktiko erreal batean murgilduz, ikasitakoa bertan aplikatu, taldean lan egiteko gaitasuna ekin, sormena aktibatu, irtenbideak proposatu.

OLABIDE IKASTOLA

2		EDUKIEN DENBORALIZAZIOA			
	1. ebaluazioa		2. ebaluazioa		3. ebaluazioa
14	Enpresa. Enpresaburua Enpresa motak, enpresen kokapena eta dimentsioa: multinazionalak eta ETEak. Deslokalizazioa.	10	Hornikuntza: Inbentario kudeaketa eta balorazioa Wilson ereduak. Kontrol fitxa: FIFO, BPP eta LIFO irizpideak.	14	Kontabilitate-Plan Orokorra. Egoera-Balantzea: egitura. Galera-irabazien kontua. Memoria eta beste egoera-orri finantzarioak
14	Ekoizpena: Ekoizpen errendimendua edo produktibitatea. Enpresaren kostuak. Erretagarritasun ataria. Ekoizpenaren palmifikazioa eta kudeaketa. Pert eta Gantt. Kalitatea.	10	Merkataritza legedia: Enpresaren betebeharrak eta eskubideak, Kontabilitate printzipioak eta balorazio arauak, Lehiakortasuna eta publizitate mugak, Industria jabetza eta kontsumitzaileen defentsa, Merkataritza erregistroa. Zerga legedia: Tributuak eta zerga motak: EZ, JEZ, BEZ, PFEZ. Likidazioa.	14	Kontabilitateko egoera-orrien analisiaren hastapenak: ikerketaren etapak, teknikak eta prozedurak (ratioak). Ondare analisia: balantzearen egitura eta osaera, analisia, maniobra funtsa positibo eta maniobra funtsa negatiboa. Ondare egoerak: egonkortasun finantzarioa, ordainketa-etendura egoera, desoreka finantzarioa epe luzera, porrota egoera.
11	Enpresa forma juridikoak: EA, Ekomand., Ekoop., EALab, Emugat. Ekolek. Akzioak	10	Merkataritza. Merkatuaren azterketa. Merkatuaren segmentazioa. Marketinga: produktua, prezioa, banaketa eta promozioa. Marketing plana. CámaraBilbao University Business Schoolen Preunica Lehiaketan parte hartuz Marketinaren inguruan kasu praktiko erreal batean edukiak aplikatu, irtenbideak planteatu eta proposamenak eman ahozko azalpen bat emanez.	14	Finantzaketa koadroa: Funtsen jatorri eta aplikazioaren egoera-orria FJAE Finantza ratioak: altxortegia, egonkortasuna, ibilgetasuna, berma osoa, likidezia, erabilgarritasuna, zorpetzea eta finantza autonomia. Enpresaren altxortegia eta kutxako fluxua (Cash-Flow) Enpresaren errentagarritasunaren analisia: errentagarritasun ekonomikoa, finantza errentagarritasuna, palanka-efektua eta zorpetzea.
11	Zuzendaritza: Planifikazioa, Antolakuntza, Kudeaketa eta Kontrola.	10	Giza baliabideak: Langileen kudeaketa. Lan harremanak: sindikatuak, negozio kolektiboa, gatazka kolektiboak. Lan segurtasun eta higieena.	14	Enpresa. Enpresa proiektua. Merkataritza plana. Produkzioa. Erosketak. Antolaketa/kudeaketa. Zergak
6	MMT-PRAXIS simulatzailea erabiliz Young Business Talents lehiaketan parte hartuz enpresaren kudeaketarako merkatua ezagutu, ekoizpen baldintzak ezagutu, hausnartu eta erabakiak hartu. Emaitzak interpretatu eta erabakiak baloratu ondorioak atera eta irizpidez jokatu.	10	Enpresaren finantzaketa iturriak: baliabide propioak, epe ertain eta luzerako kanpoko finantzaketa-baliabideak, epe motzerako kanpo baliabideak. Kostu haztatua. Inbertsioa. Enpresaren zikloak. Batez besteko heltze-aroa finantzarioa eta ekonomikoa.		

OLABIDE IKASTOLA

3	METODOLOGIA
<p>Gaiaren hasieran azalpen saioak egiten ditut. Hauek ahalik eta adibide gehien erabiliz egiten dira.</p> <p>Ebaluazio bakoitzean ikaste prozesuko ariketak egiten ditugu: Liburuko ariketak, irakasleak sortutako ariketak eta EHUKo 2010tik 2015 arte egindako hautafrogetan jarri diren ariketa eta galderak.</p> <p>Hainbat gai teoriko (enpresaren forma juridikoak, AMIA, zuzendaritza eta antolakuntza, estrategia eta garapena..) taldeka lan egin eta aurkeztu egin dituzte, forma juridiko ezberdinen arteko diferentziak ikusteko eta enpresa ezberdinen indarrak/ahultasunak zein aukerak/mehatsuak ikuspegi ezberdinetatik ikusi ahal izateko, antolamentu ezberdinak ikusteko eta eztabaidatzeko eta abar.</p> <p>Azalpen teorikoak bideoekin eta egunkariko zein aldizkarietako adibide praktikoeekin lagunduak dira.</p> <p>CámaraBilbao University Business School-aren laguntza jasoz saio teoriko eta praktikoan parte hartuko dugu. Marketin inguruko Preunica Lehiaketan.</p> <p>Young Business Talents lehiaketan Nivea produktuak kudeatu inbersiotatik abiatuz, ekoizpen erabakiak hartu eta merkaturatu MMT simuladoreak erabiliz.</p> <p>Egiten dugun lan guztia koaderno pertsonalean egingo da eta adieraziko da.</p>	

4	BALIABIDEAK
Balantzeen analisisa. Elhuyar Ekonomia eta enpresen antolaketa Mc GrawHill Economía de la empresa. Mc GrawHill	MMT simuladorea YBT EHUKo hautafroga azterketen ariketak Ekonomia Olinpiadako proben ariketak CámaraBilbao University Business School
TESTU LIBURUA: Enpresaren ekonomia	ARGITALETXEA: McGrawHill

OLABIDE IKASTOLA

5	EBALUAZIOA: TRESNAK, EBALUAZIO ETA KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK				
<p>Ebaluazio bakoitzean ikaste prozesuko ariketak egingo ditugu: Liburuko ariketak, irakasleak sortutakoak, eta EHUko 2010tik 2017 arte egindako hautafrogetan jarri diren ariketa eta galderak, 2009tik 2014ra ekonomia olinpiadetan egin diren proben ariketak... Talde lanak egingo da, eta praktikak ere bai CámaraBilbao University Business School). Egiten den guztia koadernoan eginda izango da edo adierazpen bat izango du (egindakoaren hausnarketa, ondorioak etab). Guzti hau ebaluatzen joango den produkzioa eta lana izango da.</p> <p>Ebaluazio bakoitzaren bukaeran azterketa egingo da eta ebaluazioko notaren % 80 suposatuko du.</p> <p>Azterketan bereiztuko dira kontzeptuak ulertzea eta definitzen jakitea (azterketaren balioaren % 30 izango da) alde batetik, eta kontzeptuak aplikatuz testuak interpretatzen jakitea, kausak eta ondorioak identifikatzen jakitea, hausnarketa egin eta iritzi pertsonal koherenteak defendatzea, problemak ebazten jakitea eta dagokien estrategia aplikatuz emaitza egokia ematea jakitea. (azterketaren balioaren % 70 izango da)</p> <p>Ebaluazioan zehar egin diren lanak koadernoan adierazita (ariketak, testuak taldeetan, iritziak eman eta defendatu, ahozko azalpenak, praktikak, lehiaketak..) ebaluazioaren balioaren % 10 izango da</p> <p>Ebaluazioan zehar erakutsitako jarrera (ikasgaiarekiko interesa parte hartzen, lanak egiten, galdetzen... ikaskideekin eta irakasleekin errespetuz jokatzera, puntualitatea..) ebaluazioaren balioaren % 10 izango da</p> <p>Young Business Talents eta CámaraBilbao University Business School-ean Marketinaren inguruko saioetan egindako lanak eta lorpenak ere kontutan hartuko dira.</p>					
KALIFIKAZIOEN BALIO PORTZENTUALA	KONTZEPTUA K	40	PROZEDURAK	50	JARRERAK 10

6	BERRESKURAPEN SISTEMA				
<p>Azterketa baten bitartez errekupeartzeko aukera izango dute ebaluaketa bakoitzean. Horren balioa notaren %80 izango da, beste %10 koadernoan egindako lan berreskuratuak eta %10 adierazten ari den jarrera.</p> <p>Errekupeazioko nota ebaluazioko notarekin batzbestekoa izango da</p> <p>Ikasturtea amaitu ondoren, ikasleak ez badu kurtsoa gainditu nahikotasun azterketa bat izango du. Azterketa notaren %90 izango da eta beste %10 koadernoan egindako lan berreskuratuak.</p> <p>Nota igotzeko aukera ere egongo da kurtsoa amaieran, beti ere lana eta saiakera erakutsi badira kurtsoan zehar.</p>					